

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA:

Udal honek, Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauarekin Zerga honi zuzenean dagokion Foru Arauarekin bat, Ordenantza honen arabera Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga eskatzen du.

2. ARTIKULUA:

Ordenantza hau Udalerri osoan ezarriko da.

II.- ZERGA-EGITATEA

3. ARTIKULUA:

Hauek dira zerga honen zerga-egitateak:

1.- Bide publikoetatik ibiltzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titularitatea izatea, edozein delarik ere horien mota eta kategoria.

2.- Zirkulaziorako gai dela joko da dagokion erregistro publikoetan matrikulatua izan den ibilgailu oro, baldin eta ez bazaio baxerik eman aipatu erregistroetan. Zerga honen ondorioetarako, zirkulaziorako gai direla joko da, aldi baterako baimena eta matrikula turistikoa dutenak.

III: EZ ORDAINTZEA

4. ARTIKULUA:

Ez dute zerga hau ordaindu behar:

a) Modeloak zaharrak izateagatik erregistroan baja emanda dauden ibilgailuak, baina ohiz kanpo -erakusketak, lehiaketak edo horientzako lasterketa mugatuak-zirkulatzeko baimena dutenak.

b) Trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastatzen dituzten atoiak eta erdi atoiak, zama erabilgarria 750 kilogramotik gorakoa ez denean.

IV: SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

5. ARTIKULUA:

1.- Zergaz salbuetsiak geldituko dira:

a) Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta Tokiko Erakundeetako ibilgailu ofizialak, herritarren defentsa edo segurtasunari atxikiak badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikorako, kontsul-bulegoetarako, eragile diplomatikoentzako eta karrerako kontsul-funtzionarioentzako ibilgailuak, bere herrialdeetako hiritarrak badira, kanpotik identifikatuak badaude eta hedapenean eta mailan elkarrekikotasunaren truke.

Era berean, nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, egoitza edo bulegoa Espainiako Estatuan badute eta estatutu diplomatikoaz hornituak badaude.

c) Nazioarteko hitzarmen edo tratatuen ondorioz hala xedatzen duten ibilgailuak.

d) Osasun-laguntzarako edo zaurituak ala gaixoak garraiatzeko ambulanziaz eta zuzenean bideratutako gainerako ibilgailuak.

e) Ibilgailuei buruzko Araudi Orokorrak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuan onartutakoak, II. eranskineko A letran aipatutakoen arabera, mugikortasun mugatua duten pertsonentzako ibilgailuak, ezintasuna duten pertsonen izenean matrikulatuak badaude.

Era berean, salbuetsiak daude 14 zaldi fiskal baino gutxiago dituzten ibilgailuak, ezintasuna duten pertsonen izenean matrikulatuak badaude eta beraiek eskusiboki erabiltzeko badira. Salbuespena egoera mantentzen den bitartean aplikatuko zaie, bai ezintasunak dituzten pertsonak gidatzen dituzten ibilgailuei, bai horiek garraiatzera bideratuak direnei.

Aurreko bi paragrafoetan aurrez ikusitako salbuespenak subjektu pasibo onuradunei ibilgailu batengatik aplikatuko zaie, nahiz eta aldi berean ibilgailu gehiago izan.

Letra honetan xedaturako, ezintasuna duten pertsonak honako hauek dira:

- a) 100eko 33 edo hortik gorako ezintasuna eta 100eko 65etik beherako ezintasuna onartuta duten pertsonak, mugikortasun mugatuaren urritasun-egoeran badaude. Horiek izango dira 1971/1999 Errege Dekretuak, abenduaren 23koak, ezintasunaren maila onartu, aitortu edo kalifikatzeko prozedurei buruzkoak, A, B edo C hizkietan deskribatutako egoeratan sartutakoak. Halaber, sartzeko dira aipatu baremoaren D, E, F, G edo H hizkietan 7 puntu edo gehiago lortzen dutenak.

- b) Ehuneko 65 edo hortik gorako desgaitasun-maila duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letratan barne sartuta dauden pertsonen izenean, horiek A letrarekin kalifikatutako mugikortasun murriztuko egoera karentzian badaude aipatu 1971/1999 Errege Dekretuaren III. Eranskin bezala dagoen baremoan, ez zaie aplikagarria izango 14 zaldi fiskaleko muga, beti ere ibilgailua gorpil aulkiarekin erabiltzeko egokitua badago.

f) Hiri-garraio publikoaren zerbitzuari atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, betiere bederatzi plaza baino gehiago badituzte, gidaria barne.

g) Traktoreak, atoiak, erdi atoiak eta makineria, Nekazaritzaren Ikuskapen Txartela badute.

2.- Artikulu honen 1. ataleko e) eta g) hizkietan aurrez ikusitako salbuespenak aplikatzeko, interesatuek ematea eskatu beharko dute. Xede horrez, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia azaldu beharko dituzte. Artikulu honen 1. artikuluko e) hizkian aurrez ikusitako salbuespenaren ustezkoetan hurrengo dokumentuak erantsi beharko dira:

- Salbuespena eskatzen den ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- Salbuespena eskatzen den ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren txartelaren fotokopia.
- Ezintasuna eta, hala badagokio, mugikortasun mugatuaren urritasun-egoera egiaztatzen duen ziurtagiria, organo eskudunak egina; ez da nahikoa izango balorazio-taldeek egindako irizpen tekniko-fakultatiboa.
- Salbuespena eskatzen den ibilgailua bakarrik ezintasuna duenak erabiltzera bideratua dagoela adierazten duen zinpeko aitortzea.

Udal-administrazioak salbuespena aitortzen duenean, emakida egiaztatzen duen dokumentua luzatuko da.

Orokorrean, salbuespenak eskaera-datatik hasita hurrengo ekitaldian hasiko dira eta ez du atzeraeraginezkeri izango. Hala eta guztiz ere, onura fiskala kitapena behin betikoa izan baino lehen eskatzen bada, eman egingo da zerga sortzen den datan gozatzeko eskatutako baldintzak betetzen badira.

3.- Zergaren kuotari dagokionez, ehuneko ehunaren hoberia izango dute ibilgailu historikoek edo gutxienez hogeita bost urtetako antzinatasuna duten ibilgailuak. Antzinatasuna zehazteko fabrikazio-datari erreparatuko zaio. Fabrikazio-data ezaguna ez balitz, lehenengo matrikulazioaren data hartuko da edo, hori ezean, mota edo aldaera hori fabrikatzeaz utzi zen data.

4.- Ibilgailu hibridoaren gaineko zergaren kuotaren ehuneko berrogeita hamarrek hoberia izango dute.

Hobari hau aplikatu ahal izateko interesatuek emakida-eskabidea egin beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula, eta onuraren arrazoia adieraziz, eta eskabidearekin batera zirkulazio baimenaren eta salbuespena eskatzen den ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren txartelaren kopia.

Udal-administrazioak hoberia aitortzen duenean, emakida egiaztatzen duen dokumentua luzatuko da.

Orokorrean, hobari honen emakida balioa eskaera-datatik hasita hurrengo ekitaldian hasiko da eta ez du atzeraeraginezko efekturik izango. Hala eta guztiz ere, onura fiskala kitapena behin betikoa izan baino lehen eskatzen bada, eman egingo da zerga sortzen den datan gozatzeko eskatutako baldintzak betetzen badira. . Era berean, ibilgailuaren alta berria denean, atzeraeraginezko efektua izango du eskabidea hilabeteko epean egiten bada, ibilgailua matrikulatzen den datatik kontatzen hasita.

5.- Motor elektrikoa duten ibilgailuek kuotaren ehuneko hirurogeita hamabosteko hoberia izango dute.

Hobari hau aplikatu ahal izateko interesatuek emakida-eskabidea egin beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula, eta onuraren arrazoia adieraziz, eta eskabidearekin batera zirkulazio baimenaren eta salbuespena eskatzen den ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren txartelaren kopia.

Udal-administrazioak hobaria aitortzen duenean, emakida egiaztatzen duen dokumentua luzatuko da.

Orokorrean, hobari honen emakida balioa eskaera-datatik hasita hurrengo ekitaldian hasiko da eta ez du atzeraeraginezko efekturik izango. Hala eta guztiz ere, onura fiskala kitapena behin betikoa izan baino lehen eskatzen bada, eman egingo da zerga sortzen den datan gozatzeko eskatutako baldintzak betetzen badira. Era berean, ibilgailuaren alta berria denean, atzeraeraginezko efektua izango du eskabidea hilabeteko epean egiten bada, ibilgailua matrikulatzen den datatik kontatzen hasita.

6.- Bost plaza edo gehiago eta 15,99 zaldi-potentzia fiskaleko ibilgailu bakarrak kuotaren ehuneko berrogeita hamarreko hobaria izango du, titularra familiako kideren bat bada, familia ugariaren kategoria badu eta urteko diru-sarrerak guztira 21.500 eurotik gorakoak ez badira.

Hobari hau aplikatu ahal izateko, interesatuek emakida-eskabidea egin beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoiak adieraziz, eta eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Ibilgailuaren zirkulazioko baimenaren kopia.
- Salbuespena eskatzen den ibilgailuaren ezaugarri teknikoen txartelaren fotokopia.
- Bizkaiko Foru Aldundiak emana, familia ugariaren titulua.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) Aitorpenaren kopia, eta hau Bizkaiko Forua Aldundiak luzatutako egiaztagir bidez aurkeztu ezean, familia unitateak urtean zehar jasotako sarrerak egiaztatzen dituen dokumentazioa, (nominak, erretiro ziurtagiriak, indemnizazioak, subsidioak, gizarte laguntzak, etab edota sarrerak jasotzen direla frogatzen duen bestelako edozein dokumentazio).

Udal-administrazioak hobaria aitortzen duenean, emakida egiaztatzen duen dokumentua luzatuko da.

Orokorrean, hobari honen emakida balioa eskaera-datatik hasita hurrengo ekitaldian hasiko da eta ez du atzeraeraginezko efekturik izango. Hala eta guztiz ere, onura fiskala kitapena behin betikoa izan baino lehen eskatzen bada, eman egingo da zerga sortzen den datan gozatzeko eskatutako baldintzak betetzen badira. . Era berean, ibilgailuaren alta berria denean, atzeraeraginezko efektua izango du eskabidea hilabeteko epean egiten bada, ibilgailua matrikulatzen den datatik kontatzen hasita.

V: SUBJEKTU PASIBOAK

6. ARTIKULUA:

Zerga honen subjektu pasiboak dira Zergari buruzko Foru Arau Orokorraren 33. Artikuluak adierazten dituen pertsona fisikoak, juridikoak eta Entitateak, zirkulazio baimenean ibilgailua beraien izenean agertuz gero.

VI: KUOTA

7. ARTIKULUA:

1. Zerga honako tarifa-koadro honen arabera eskatuko da:

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota eurotan
A) AUTOAK	
8 zaldi fiskaletatik beherakoak	23,95
8tik 11,99ra bitarteko zaldi fiskalekoak	65,73
12tik 13,99ra bitarteko zaldi fiskalekoak	136,61
14tik 15,99ra bitarteko zaldi fiskalekoak	154,87
16tik 19,99ra bitarteko zaldi fiskalekoak	176,14
20 zaldi fiskaletik gorakoak	228,66
B) AUTOBUSAK	
21 plazatik beherakoak	157,73
21etik 50 plazara bitartekoak	226,29
50 plazatik gorakoak	282,89
C) KAMIOIAK	
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	78,63
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	153,87
2.999 baino gehiagotik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	220,77
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	275,99
D) TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskaletatik beherakoak	33,68
16tik 24,99ra bitarteko zaldi fiskalekoak	52,96
25 zaldi fiskaletik gorakoak	157,73
E) TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEK ARRASTATUTAKO ATOIAK ETA ERDI ATOIAK	
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	34,75
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	52,96
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	157,73
F) BESTELAKO IBILGAILUAK	
Ziklomotorrak	8,41
125 cc-rainoko motozikletak	8,41
125etik 250 cc-rainoko motozikletak	14,38
250etik 500 cc-rainoko motozikletak	28,19
500etik 1.000 cc-rainoko motozikletak	58,37
1.000 cc-tik gorako motozikletak	117,50

2.- Ibilgailu-mota zehazteko arauz xedatutakoari erreparatuko zaio eta, gainera, honako arauak kontuan hartuko dira:

a) Furgonetatzat joko da pertsonak eta gauzak batera garraiatzeko egokitu den turismo-ibilgailua. Egokitzapenak honako hauek izango dira: eserlekuak eta kristalak kentzea, ateen tamaina edo kokapena aldatzea edo modeloa nabarmenki aldatzen ez duten aldaerak. Furgonetek turismoek bezala ordainduko dituzte zergak, hau da, potentzia fiskalaren arabera, hurrengo kasuetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago garraiatzeko gaituta dagoenean, gidaria barne. Kasu horretan autobusei dagozkien zergak ordainduko ditu.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kilogramo baino gehiagoko karga erabilgarria garraiatzeko baimena duenean. Kasu horretan kamioiei dagozkien zergak ordainduko ditu.

b) Zerga aplikatzeko orduan, motogurpilak motozikletak dira eta, beraz, zilindrobolumenaren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuek aldi berean eta bereizita ordainduko dituzte arrastatze-potentzia eramaten duenak, eta arrastatutako atoeiek nahiz erdi atoeiek.

d) Edukierarengatik matrikulatu behar ez diren atoeiek eta erdi atoeiek nahiz ziklomotorrek zirkula dezakete industri ordezkartzak dagokion egiaztagiria luzatu duen unetik eta, bestela, egiaz zirkulatzen hasten diren unetik.

e) Bestelako trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastatu edo garraiatu behar ez dituzten makina autopropultsatuak eta bide publikoan zirkula dezaketenak, traktoreei dagozkien tarifak ordainduko dituzte.

f) Edozelan ere, tarifen D) hizkiak aipatzen duen "traktoreak" izen orokorraren barruan traktokamioiak eta "obra eta zerbitzuetako traktoreak" sartzen dira.

g) Zerga honen ondorioetarako, karabanek turismoek bezala ordainduko dute.

VII: ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

8. ARTIKULUA:

1.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator, ibilgailua lehenengoz erosi berria denean edo baja emanda dagoenean izan ezik. Kasu horietan zergaldia erositako egunean hasiko da edo Trafikoko Bulego Nagusian baja ematen denean amaituko da, hurrenez hurren.

2.- Zerga zergaldiaren lehenengo egunean sortzen da.

3.- Ibilgailua lehenengoz erosi berria denean, edo behin betiko baja eman zaionean, kuotaren zenbatekoa proportzionalki zatituko da hilabete naturaletan eta alta edo baja gertatzen den hilabetea barne.

Baldintza berdinetan proportzionalki zatituko da kuota ibilgailua lapurtu izanagatik aldi baterako baja ematen denean eta zenbatekoa zehazteko dagokion erregistroan aldi baterako baja-datari erreparatuko zaio.

VIII: KUDEAKETA

9. ARTIKULUA:

Kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, baita tributu kudeaketaren bidez emandako ekintzen azterketa ere, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den bizilekuaren Udalarari dagozkio.

10. ARTIKULUA:

1.- Trafikoko Bulego Nagusien aurrean ibilgailuaren matrikulazioa, zirkulatzeko ahalmenaren egiaztagiria edo behin betiko baja eskatzen dutenek lehenik eta behin zerga ordaindu dutela frogatu beharko dute. Egiaztatze-betebehar horrez salbuesten zaie behin betiko baja hamabost urtetako edo gehiagoko antzintasuna duten ibilgailuentzat eskatzen dutenean.

2.- Betebehar berdina dute ibilgailuen titularrek, konponketa Trafikoko Bulego Nagusiari jakinarazten diotenean, betiere zergari dagokionez sailkapena aldatzen denean, baita transferentzien kasuetan eta ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri den helbide-aldaketan kasuetan ere.

3.- Trafikoko Bulego Nagusiak ez ditu ibilgailuen baja- edo transferentzia-espeditenteak izapidetuko lehenik eta behin zerga ordainduta dagoela frogatzen ez bada.

4.- Zerga ordainduta dagoela egiaztatzen duten dokumentuak Udaleko zerga-bilketarako bulegoan egingo dira eta egiaztatzea gauzatzeko unean urteko ekitaldiko tarifa indarrean ez balego edo oraindik kobratzeke balego, aipatu bulegoek liberatzeko ahalmenaren ordainagiriarekin kobratuko dute une horretan indarrean dagoen kuota.

Dokumentu horien balioa emate-datatik hasita urtebetekoa izango da.

Dena delakoa, Trafikoko Probintziako Bulego Nagusiak bakarrik azkeneko ordainagiria eskatuko balu, Udaleko Zerga-bilketarako Bulegoak ez du urteko ekitaldiko ordainagiria eskuratuko, ibilgailuak aurreko ordainagiriak ordaintzeke dituenen.

11. ARTIKULUA:

1.- Ibilgailu berriak erosten direnean edota hauek zerga honen ondorioetarako bere klasifikazioa aldatuz eraberritzen direnean, subjektu pasiboek, Udal Administrazioako dagokion Kudeaketa bulegoan aitorten-kitapena aurkeztuko dute Udalak ezarritako ereduaren arabera, matrikulazioa egiten den egunetik kontatzen hasita 30 eguneko epean, dokumentu honek dagokion kitapen arrunta edo osagarria egiteko ezinbestekoak diren zerga-zerrendaren elementuak izango ditu eta kitapen hori burutu izana. Honekin batera Probintziako Trafikoko Buruzagitzan aurkeztutako aitortenaren kopia zigitatua, zirkulazio baimena, ibilgailuaren ezaugarri teknikoan ziurtagiria eta subjektu pasiboaren Nortasun Agiri Nazionala edo Identifikazio Fiskalaren Kodea.

2.- Aurreko atalean aipatu den aitorten-kitapena aurkeztearekin batera, subjektu pasiboak zergaren kuotari dagokion zenbatekoa ordainduko du. Norberak egindako kitapena behin-behinekoa izango da kudeaketa bulegoak zerga arautzen duten araei jarraiki egin dela egiaztatzen ez duen bitartean.

12. ARTIKULUA:

1.- Matrikulatuta dauden ibilgailuek edota zirkulatzeko gai direnek, urtero adierazitako epearen barruan ordainduko dute urteko Zergaren kuota eta hau publiko egingo da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz eta Udaletxean eta Udaleko Zerga-bilketa Bulegoan ediktuak jarritz.

2.- Aurreko atalean araututakoan, dagokion kuota-bilketa urteko errolda sistemaren bidez egingo da, eta bertan dagokion Erregistro Publikoan, Udalerrian helbideratuta dauden pertsona eta entitateen izenean zerga hau ordaindu behar duten ibilgailu guztiak egongo dira.

3.- Zergaren errolda edo matrikula jendaurrean jarriko da 15 eguneko epean legezko interesatuek aztertu, eta hala badagokio, erreklamazioak egiteko. Jendaurreko erakusketa "Lurraldeko Aldizkari Ofizialean" argitaratuko da eta kitapenaren jakinarazpen ondorioak izango ditu subjektu pasibo bakoitzarentzat.

IX: BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

3/2009 Foru Araua indarrean sartu baino lehen 7/1989 Foru Arauak, ekainaren 30ekoak, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoak, 1. atalaren e) hizkian zuen idazkera aplikatuz Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaz salbuetsiak zeuden ibilgailuek berriz ere salbuespena eskatu beharko dute, betiere Udalaren aurrean arestian aipatutako artikuluari emandako idazkera berrian sartuak dauden baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ez badute.

X: INDARGABETZEKO XEDAPENA

Indargabetua geratzen da Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.

XI: AZKEN XEDAPENA

Ordenantza Fiskal honen aldaketa 2018ko irailaren 25ean onartu zen behin betiko (2018ko abenduaren 10ean argitaratu zen BAO, 236. zk.), 2019ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du berau aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.